

GARRAIO BEREZIEN ZIRKULAZIORAKO AP-68 AUTOBIDEAK DITUEN EZAUGARRIEI BURUZKO
TXOSTENA

Baimen generikoak:

AP-68 autobidetik igarotzeko modu generikoan baimendu ahalko diren garraio guztiei dagozkie. Horretarako, beharrezko baldintza izango da baimena ematea eta AP-68 autobidetik igarotzean dagokion bidesaria ordaintzea.

Baimen generikoaren xede diren garraioen neurriak eta masak hauek dira:

Luzera (L)	18,75 < L 20,55 m
Altuera (h)	4,0 < H 4,5 M
Zabalera (a)	2,55 < a 3,0 m
Guztizko masa (BGM)	40 < BGM 45,0 edo 50,0 TN
Masa ardatzeko (Mardatz)	Mardatz IEO eta Mardatz IAT

Baimen generiko hauek ematean enpresa emakidadun honek ezarritako baldintza hau barne sartu beharko da:

Baimen espezifikoa, AP-68 autobidea barne sartuta, duten garraioek, garraio bakoitzaren ibilbidea osatzeko beharrezko baldintza gisa, gutxienez 3 egun lehenago AP-68 autobidearen enpresa emakidadunarekin harremanetan jarri beharko dute {941-44-88-32} igarotzeko baimena eman eta dagokion bidesaria ordaindu ahal izateko. Enpresa emakidadun honek beretzat gordetzen du igarotzeko ordua eta eguna ezartzeko eskubidea, betiere bidezaintza eraginpean hartzen duten inguruabarrak kontuan hartuz.

Baimen espezifikoak:

AP-68tik igarotzeko modu espezifikoa baimendu ahalko diren garraio guztiei dagozkie. Horretarako, beharrezko baldintza izango da baimena ematea eta AP-68 autobidetik igarotzean dagokion bidesaria ordaintzea.

Ibilgailu Berezien (IB) eta Garraio Bereziko Erregimenean diharduten Ibilgailuen (GBEDI) neurriak eta masak hauek dira:

Luzera (L)	20,55 < L 40 m Arrigorriagako ordainlekutik (4,7 k.p.) edo, Bilborako norabidean, Laudioko ordainlekutik (13,2 k.p.) sarrera duten ibilbideak kanpoan utzita, 25 m-ko luzeratik aurrera emakidadunaren txosten pertsonalizatua beharko baitute.
Altuera (h)	4,0 < H 4,5 m
Zabalera (a)	3 < a 4,8 m Bilborako norabidean, Laudioko ordainlekutik (13,2 k.p.) sarrera duten ibilbideak kanpoan utzita, 4 m-ko zabaleratik aurrera emakidadunaren txosten pertsonalizatua beharko baitute.
Guztizko masa (BGM)	45 < BGM 110 TN
Masa ardatzeko (Mardatz)	Mardatz IEO eta Mardatz IAT

Baimen generiko hauek ematean enpresa emakidadun honek ezarritako baldintza hau barne sartu beharko da:

Baimen espezifikoa, AP-68 autobidea barne sartuta, duten garraioek, garraio bakoitzaren ibilbidea osatzeko beharrezko baldintza gisa, gutxienez 3 egun lehenago AP-68 autobidearen enpresa emakidadunarekin harremanetan jarri beharko dute {941-44-88-32} igarotzeko baimena eman eta dagokion bidesaria ordaindu ahal izateko. Enpresa emakidadun honek beretzat gordetzen du igarotzeko ordua eta eguna ezartzeko eskubidea, betiere bidezaintza eraginpean hartzen duten inguruabarrak kontuan hartuz

Bidezaintza-azterlanaren mendeko baimenak enpresa emakidadunaren aldetik.

Baimen generikoak edo espezifikoak emateko finkatutako neurriak eta tona-kopurua gainditzen dituzten garraioei dagozkie. Hau da, barne sartzen dira hau betetzen dutenak:

Luzera (L)	L > 25 m, Arrigorriagako ordainlekutik (4,7 k.p.) edo, Bilborako norabidean, Laudioko ordainlekutik (13,2 k.p.) sarrera duten ibilbideetarako. L>40m
Altuera (h)	H >4,5 M
Zabalera (a)	a > 4m, Bilborako norabidean, Laudioko ordainlekutik (13,2 k.p.) sarrera duten ibilbideetarako. a> 4,8 m, gainerako ibilbideetarako.
Guztizko masa (BGM)	BGM >110 TN
Masa ardatzeko (Mardatz)	Mardatz > IEO eta Mardatz IAT

Kasu hauetan eskatzaileak AP-68 autobidearen enpresa emakidadunarekin behar besteko aurrerapenarekin harremanetan jarri beharko du (941-44-88-32), garraio bakoitzaren kasu zehatzari eta ibilbideari begira, igarotzeko bideragarritasunari buruzko informazioa eskatzeko. Bideragarritasun-txostena aldekoa izanez gero, enpresa emakidadunak, igarotzeko baimenarekin batera, baldintza berezi batzuk ezarriko ditu; hain zuzen, eskatzaileari, bidesariaren ordainketaz gain, kostu ekonomiko gehigarria ekar diezaioketenak.